

*Herrien burujabetzaren aurkako
EB eta AEBren akordioa*

TTIP



eh

▶ **e**RABAKI **h**EMEN



1 Zer da TTIP?

T TIP akronimoa Transatlantic Trade and Investment Partnership izen ingelesetik dator eta euskaraz Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena da.

AEBko presidentea den Barack Obamak 2013ko otsailean burututako "Batasunaren Egoeraren" diskurtsoan aipatu hitzarmenerako negoziaketak abiatzekoak zirela iragarri zuen. Aste batzuk beranduago, Europako estatuetak beste presidenteez erabakia berretsi eta beren babesa azaltzen joan ziren, horien artean Rajoy eta Hollande.

Negoziaketa horiek era sekretuan burutzen ari dira eta euren azken helburuak soilik azaldu dituzte: "merkatuak ireki" eta "oztopo ez arantzelarioak" gainditzea edo desagerraraztea. Honekin batera, nola ez, garapen ekonomikoa eta enplegua sortuko dela esan dute.

Negoziaketak sekretuak izatearen arrazoi ofiziala, jokoan dauden interes ekonomikoen garrantzia eta tamaina litzateke, ustez, publikotasunak negoziatzaileei kalte egin diezaiokelakoan.

Edonola ere, denbora honetan negoziatzen ari diren gaien inguruko filtrazio garrantzitsuak egon dira eta horrek Europako Batzordeari zein AEBko gobernuak adierazpenak egitera behartu ditu. Noski, adierazpen horietan informazio gutxi eman eta eman diren filtrazioetatik iragartzen ziren arriskuak (adib. pribatizazio prozesuak bultzatuko dituela...) ukatzeaz gain, aipatu bezala, ekonomiaren garapenerako eta enplegua sortzeko izango omen dituen onurak azpimarratzera mugatu dira.

Negoziaketak 2015ean zehar ere burutuko dira eta bi aldeek helburua 2016ren bueltan Hitzarmena sinatzea eta martxan jartzea litzateke.

Garrantzitsua da hasieratik, denek onartzen duten gauza bat azpimarratzea: Hitzarmen honen helburu "esplizitua" ez da merkataritzaren alorrean izan diren bestelako hitzarmenen parekoa. Hau da, helburua ez da inportazio edo esportaziorako dauden arantzel edo presio fiskala arintzea, hori berez jada oso txikia baita, "merkatuak bateratzeko" gaur egun bi aldeetan egon daitezkeen "egoera" eta "arautze" ezberdinekin amaitzea baizik; ekonomiaren globalizazioaren baitan, urrats handi bat eman eta merkatu handi eta bakar bat osatzea.

Akordio honen inguruan orain arte ezagutzen ditugun ezaugarriak onartezinak dira Europarentzat, Europa sozialarentzat, Ongizatearekin, aniztasun kulturalarekin eta biodibertsitatearekin konprometitutako Europarekin eta bere herritarrekin.

Helburua orokorra eta handia izanik, TIPP ez da tresna bakarra. Hala, EBk eta Kanadak joan den urrian filosofia berari erantzuten dion CETA ituna adostu zuten. Bestalde, TTIPen osagarri EB, AEB eta munduko hamarnaka herrialde finantza zerbitzuen merkatua liberalizatzeke TISA (Trade in Services Agreement) tratatua negoziatzen ari dira, era sekretuan baita ere.

2 Kokapen historiko eta politiko-ekonomikoa

Gaur egungo ekonomiaren paradigma nagusia liberalismoan oinarritzen da. Era laburrean azaltzeko, liberalismoaren aldekoek, merkatuak berak, eta berak bakarrik, ekonomia arautzeko duen gaitasunean sinesten dute eta beraz, euren iritziz, Estatuak ahalik eta gutxien sartu behar du eskua ekonomiaren alorrean.

XVIII. eta XIX. mendean paradigma hau erabat nagusia izan zen ekonomiaren alorrean eta gaur arte kapitalismoaren oinarri ideologiko eta praktikoa nagusia izan da: (teorian) Estatuak ez du, oro har eta teorian, esku hartzen eta merkatuaren indarrek bereziki finkatzen dute ekonomiaren norabidea.

1989an ordea, Berlineko harresiaren erorketa sinbolikoarekin, sozialismo erreala deiturikoa bat-batean desagertu eta erreferentzia horren amaieraz jabeturik liberalismoak, berriz ere, bere lekua aldarrikatu zuen, oraingoan neoliberalismoaren izenarekin.

Arautze eza horren ondorioak larrutik ordaintzen ari gara ordea. Arautze eza horrek adibidez, finantza zein higiezin burbuilak eragin ditu eta horrela kapitalismo basatiena areagotzeko eta inoiz egon diren multimillonario kopururik handienak sortzeko baliagarria dela erakutsi digu. Alta, 2008an burbuilak eztanda egin zuenean, neoliberalismoa, azken hamarkada hauetan sortu den krisi sozial eta ekonomiko luze eta gordinena sortzearen arduraduna ere badela esan beharra dago.

Arautze eza horrek, kontrol publiko eta sozial eza horrek, "eskuak libre" utzi zizkien kapitalismoaren helburu den langileen bizkar kapital metaketa areagotzeko eta negozio espekulatiboari bide emateko. Burbuilaren eztehandak ordea, sistema kapitalistaren ezintasun eta kontraesanak ageri-agerian utzi ditu.

Sobiet Batasunaren sorrerak eraiki zuen erreferentzia batetik eta AEBko 1929ko krisiak bestetik, keynesianismoaren sorrera eta garapena ekarri zuen: funtsean, estatuaren interbentzio handiagoa dakarren ekonomia politikoa da.

Keynesianismoak politika sozialdemokraten garapena ekarri zuen eta, oro har, Europa osoan hedatu zirela esan dezakegu ongizate estatua deritzonari bide emanez.

Reagan eta Thatcherrek, multinazional handiek finantzatutako lobbyek suspertu eta bultzatutako neoliberalismoa bere egin eta hamarkadetako borroken ondorioz lortutako langileen eskubideen eta ongizate estatuaren kontrako ofentsiba neoliberalari ekin zioten, era berean, ekonomiaren arautze prozesuak baztertuz eta pribatizazio zein desarautze prozesuei ekinez.



Aitzitik, ez dirudi botere ekonomiko nagusia dutenek, "erosita" dituzten komunikabide nagusiek eta, oro har, interes ekonomiko oligarkiko horien mesedetan diharduen klase politikoak sistema aldatzeko inongo borondaterik duenik. Orain arte aplikatutako politikek ekarri gintuzten oraingo krisi egoerara eta orain arteko politika bereberekin, atera nahi omen gaituzte zulo beltz honetatik. Agerikoa da ordea, zein zailtasun dituzten egoera ekonomikoa iraultzeko eta berriz ere goranzko joerari ekiteko.

Atal honetan ere esan beharra dugu, besterik gabe, goranzko joera edo garapen ekonomiko amaigabea bilatzen duten horiek ez dutela kontutan hartzen ari baliabide naturalen agorpena edota garapen eredu honek eragiten duen aztarna ekologikoa eta etorkizunari begira ere izan ditzakeen ondorioak.

Edonola ere, goranzko joerarik egon ez izanak ez du esan nahi guztioi berdin doakigunik. Azken urteotan, neoliberalismoak indarrez jo du AEBn eta Europan eta pribatizazio prozesuak, lan merkatuaren desarautzea bilatzen duten lan erreformak, bankuen erreskateak, aberastasuna dutenen aldeko zerga erreformak, zor publikoaren burbuila eta negozioa... horiek guztiak oso presente izan dira ekonomia politikoan. Helburu teorikoa: merkatuari bidea zabaltzea eta oztopo eta trabak kentzea. Helburu praktikoa eta ikusi-paratu duguna: azken urteotan langabezia eta pobrezia gorantz egin duen bitartean, aberastasun handien kopurua eta tamaina ere handitu egin da.

Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmen honek europar espazioaren "babes legitimoak" deuseztatzen ditu, hala nola, araudi ekologiko eta sozialak: lan eskubide, gizarte babesa eta zerbitzu publikoei dagozkionak eta ingurumen, elikadura eta osasun araudiak.

Hitzarmen honek orain arte ezagutu ditugun terminoetan giza eta ingurumen dumping-a bultzatzen du, Hezkuntza eta Osasuna bezalako funtsezko arloak merkatu bihurtuz, eskubide izatetik produktu izatera pasatuko litzatekeelarik.

Ikuspegi honen oinarrian dago gizarte eredu zalantzan jartzea, Ongizatearekin konpromisodun europar eredu zalantzan jartzea. Herrien eta herritarren Europari eraso berri bat egitea. Austeritatea eta merkatuaren liberalizazioa, krisitik ateratzeko errezeta moduan aurkeztea nahiz eta errealitateak kontrakoa erakutsi digun; bakarrik krisian sakontzeko eta pobrezia eta ezberdintasuna handitzeko balio izan dutela. Austeritateak eta merkatuaren liberalizazioak korporazio handiak eta ekonomia espekulatiboa bultzatzeko balio dute, langabezia eta lan ezegonkortasuna handituz, pobrezian eta gizarte bazterketan sakonduz.

Neoliberalismoa beraz, eta hau bultzatu, kontrolatu eta hedatzen duten banku, multinazional, lobby eta teknokratek jaun eta jabe ageri da eszenatoki politiko-ekonomikoan eta finantza oligarkia honek bahituta dauka praktikan, Europako Batzordearen eta estatuen politika ekonomikoen lema. Europako estatu gehienak dituzte honetarako konplize gainera. Adibidez, horren isla dugu bankuen erreskatea, haren ondorioz herritarrek urtetan ordaindu beharko baitituzte bankuei emandako diru-laguntzak eta horixe ordaintzeko egiten ari dira murrizketa sozial guztiak.

Eta hain zuzen, **azken urteetan** egin duten guztia eta gero, neoliberalismoaren urrats berria dator, EEBB eta Europaren arteko merkataritza eta inbertsioetarako hitzarmena. Zergatik? Bada funtsean esan dezakegu bi arrazoiengatik:

Batetik, neoliberalismoaren garapena globalizazioarekin batera eman delako: biak dira moneta beraren bi aldeak. Globalizazioa bera, merkatu handi bat sortzeko urratsa izan da eta merkatu handi eta bakar hori osatzeko botere ekonomiko nagusiek dituzten "traba eta oztopo" nagusiak desagerrarazteko prozesuak burutu dituzte. Amerikaren kasuan, Kanada, AEB eta Mexikoko merkataritza hitzarmenak burutuz (Hego Amerika osoan ere burutzea zuten helburu baina bertako askapen prozesuek oztopatu dute) eta Europan, nola ez, merkatu bakarraren bidez globalizazio hori bultzatuz. Okzidentea deritzon bi alde horietan jada bi merkatu handi sortu direlarik, merkatu bakarrera saltoa emateko ordua iritsi dela uste dute batzuk. Nortzuk? Merkatuaren hedapen edo areagotzetik beren negozioak areagotzea lortzen dutenek, bereziki multinazional handiek.

Bestetik, bada ere bestelako arrazoi bat. Hain zuzen ere, ikuspuntu geopolitiko baten ikuspuntutik BRICS (Brasil, Rusia, India, China eta Hegoafrika) delakoak munduko ekonomian hartzen ari diren indarra eta horrek "okzidenteko multinazional" askorentzat suposatzen duena. Horien aurrean, konpetituko duen merkatu bakar handi bat osatzea da beraz, besteak beste, helburua, munduan zehar negozio hutsa helburu duen dinamika ekonomiko harrapakari bat areagotzeko.

Ondorioz, Hitzarmen hau neoliberalismoaren bultzada berri baten ondorioz ematen da, beronen garapena du helburu, azken bi hamarkadetan EEBB eta Europan eman diren prozesu integratzaile, pribatizatzaile eta desarautzaileei segida eman nahi die eta helburu bakarra gutxi batzuen etekin ekonomikoak direlarik, ondorioak oso larriak izan daitezke ondoren aipatuko dugun alorretan.



3 Zein atal lantzen ari dira?

Lehenik eta behin kontutan hartu behar da, esan bezala, burutzen ari diren negoziaketak sekretuak direla. Ondorioz, informazioa lortzea oso zaila suertatzen ari da. Edonola ere, hitzarmenaren helburuak zeintzuk diren jakinik eta batetik filtrazioen, adituen edo funtzionarioen iritzien ondorioz, zein bestetik bi administrazioek jada onartu dutena kontutan hartuz, honoko gaietan eragina izan dezakeela jada jakina da.

1 ZERGAPETZEA

Egia esan, beste merkataritza hitzarmenak ez bezala, ez da uste zergapetzea murriztea edo arantzelak desagerraraztea izango denik helburu nagusia. Une honetan, bai AEBn eta bai Europako Batasunean daudenak oso baxuak dira eta horretan ere urratsak eman nahi izango badituzte ere, hor ez dago koska nagusia, merkataritzari eragiten dioten bestelako arauak edota kontrol politikorako tresnak indargabetzean baizik.



2 ELIKADURAREN DESARAUTZEA

Bai nekazaritzan zein abeltzaintzan eta, oro har, elikaduraren alorrean, AEBn eta Europan dauden arauak oso bestelakoak dira. Europan, azken urteetan adibidez, hormona, pestizida eta genetikoki eraldatutako produktu ugari debekatu dira minbizia eragin dezaketelakoan. Arlo horretan Europan, "zuhurtzia" printzipioaz jokatzenez, posible da hainbat produkturen inguruko arautzea aurretik burutzea, kaltegarriak ez direla frogatu bitartean. AEBn aldiz, arautu nahi duenak alde aurretik frogatu behar du kaltegarria dela.

Ondorioz, hitzarmenaren helburu nagusietako bat Europan dagoen arautzearekin bukatzea eta AEBko nekazaritza eta abeltzaintzako elikagaien industria erraldoiari Europako merkatua ere irekitzea da. Gaur egun, eta adibide gisa, merkataritza hitzarmen librearen ondorioz, Mexikon jaten den artoaren ehunekorik handiena, AEBtik inportatutako arto transgenikoa da, nahiz eta Mexikon, mendeetan zehar, artoa nekazaritzaren eta bere kulturaren oinarri nagusietakoa izan.



3 INGURUMENAREN ALORREKO DESARAUTZEA

Ingurumenaren alorrean esan behar da Europako Batzordeak berak jada onartu duela Hitzarmenaren garapenak ondorio negatiboak izan ditzakeela ingurumenarekiko. Batetik, ibilbide luzeko merkataritzaren garapenak kutsadura handia eragiten duelako eta bestetik, jakin badakielako egun Europan dagoen ingurumenarekiko arautzea kaltetua aterako dela.

Lehen aipatu dugun zuhurtziaren printzipioa desegiten badute, ingurumenaren alorrean kalte izugarriak ekar ditzake. Egun, oraindik orain, Europako industria kimikoak milaka produktu erabiltzeko zailtasun edo debekuak dituen bitartean, AEBn arautzea askoz ere mugatuagoa da ingurumenarekiko eta zalantzarik ez dago hitzarmenaren ondorioak desarautzearen alde joko dutela, Europako multinazional nagusiek aspaldidanik salatu baitute Txinarekiko atal honetan duten "desabantaila" eta "arautzearekin amaitu beharra" dagoela aldarrikatu dute.

Hori guztia gutxi balitz, une honetan Europan indarra hartzen ari den, baina AEBn jada oso garatua dagoen frackingaren erabilpena ere jokoan dago. Europan ez bezala, AEBn 11.000 putzu baino gehiago irekitzen dira urtean eta noski, alor honetako enpresa handiek, urteetan sistema honen alde milioika dolar inbertitu dutenek, orain Europa dute jomuga eta hemen dagoen arautzea bere hedapenerako traba edo oztopo nagusia da.



Zalantzarik ez dago beraz, TTIPak ondorio oso larriak eragin ditzakeela ingurumenaren alorrean.

4 OSASUNA

Osasunaren alorrean ere ugariak dira jada aurreikusten diren ondorioak. Lehen aipatutako elikaduraren alorreko desarautzeari, osasunarekin bestelako harremanak izan ditzaketen produktu kimikoen desarautzea ere gehitu behar zaio. Lehen aipatu dugun Europako "zuhurtzia printzipioa" eta AEBn aplikatzen den "arrisku printzipioaren" artean milaka eta milaka produkturen arautze eta desarautzearen arteko tarte luzea dago. Adibide soil batek zertaz hitz egiten ari garen ulertzen lagunduko digu: Europan, adibidez, produktu kosmetikoak ekoizteko 12.000 produktu erabiltzea debekatuta daude minbizia edo bestelako gaixotasun larriak eragin ditzaketelako. AEBn zerranda hori 12 produkturena besterik ez da.



Era berean, hitzarmen honetan, industria farmazeutikoen bestelako interes batzuk ere badaude jokoan. Aipatu produktu kimikoen desarautzeaz gain, patenteen eskubideen inguruko urteak, ondoren patenteen eskusibitatearekin amaitzeko prozedura eta abar aldatu nahi dituzte. Horrek guztiak eragin handia izan dezake egun medikamendu generikoak deritzaten horietan eta nola ez, industria farmazeutikoen mesedetan.

Azkenik, kontutan hartu behar da AEBn osasungintza publikorik ez dagoen neurrian, osasungintza pribatuak garapen oso handia izan duela. Egun Europan ematen ari diren osasungintzaren pribatizazio prozesuetan ordea nekez aurkeztu daitezke AEBko osasungintza pribatuko enpresak. Aurrera begira, merkatu bakar baten baitan dauden "trabak eta oztopoak" kentzea bilatzen denean, erraza izan daiteke hemen pribatizatutako zerbitzu bat AEBko enpresa baten eskutan gelditzea. AEBko edo

EBko enpresak izan, edonola ere, guztiok dakigu eskubide sozialak bermatzen dituzten zerbitzu publikoen pribatizazio-prozesuek zein ondorio larri dakartzaten bizitzaren jasagarritasunean, bereziki zaintza-lanak behar dituzten kolektiboengan (haurtzarora, zahartzarora, mendekotasuna duten pertsonak...) kalte handia eraginez, zuzenean edo zeharka jendarte osoari eragiten baitiete. Hala, TTIPean sakondu eta AEBko sistemari geroz eta gehiago begiratu ahala, jada abiada bizian doazen pribatizazio-prozesuak atzera bueltarik gabekoak bihurtzeko arriskua biderkatuko da.

Eta azken adibide hau osasungintzaren alorrekoa bada ere, bestelako zerbitzu publikoen pribatizazioaren esleipenetan ere AEBko enpresa handiek sartzeko izango duten aukera azpimarratu behar da. Nola ez, kontutan hartu behar da, enpresa multinazional horiek zein indar eta eragin izan dezaketen, egun zuzenean eskaintzen diren zerbitzu horiek pribatizatuak izan daitezzen.


5 LAN HARREMANAK

Jakina den bezala, Europako lan-harremanen arautzea AEBen arautzea baino zorrotzagoa da, azken urteetan lan erreforma deiturikoek langileen eskubideen murrizketa nabarmena ekarri badute ere. Mundu mailan lehiatu nahi duten multinazionalak askotan salatu izan dute Europako langileriaren eskubideak lehia horretarako traba eta kostu handia direla. Horregatik, negozioazio kolektiboarekin amaitzeko ematen ari diren etengabeko urratsen baitan, ondorioztatzen da aztertzen ari garen Europa eta AEBen arteko Hitzarmena bera ere baliatuko dutela langileen eskubideen aurka joateko eta lan-harremanen desarautze prozesu etengabekoari bultzada berri bat emateko.



6 FINANTZA SISTEMA

Atal honetan, besteekin alderaturik, ezberdintasun nabarmen bat agertzen da: AEBn bankuek eta oro har finantza sistemak arautze zorrotzagoa du egun Europan baino eta beraz, ikusi beharko da bi finantza sistemen arteko ezberdintasunak zein aldetara joko duen.



Edonola ere, jakina da mundu mailan dauden paradisu fiskalei aurre egiteko borondaterik ez dagoen neurrian, finantza sistemak benetan arautzeko aukerak eskasak direla, bankuen kontrolerako aukerak ugariak direlako eta iruzurrerako aukerak ere amaigabeak.

7 ESTATU ETA MULTINAZIONALEN ARTEKO AUZIAK

Gai hau azkenerako utzi badugu ere, ziurrenik garrantzitsuenetarikoa izan daiteke. Lantzen ari den hitzarmenaren baitan badirudi multinazionalen edota nazioarteko korporazio eta estaturen artean sortzen diren auzi eta salaketen argipenerako ISDS (inbertitzaile eta estaturen arteko arazoaren erresoluziorako disposizioa) delakoa sartu nahi dela.

Horrek dakarrena zera da: estatu batek demokratikoki hartutako erabaki batek, ustez nazioarteko korporazio bat ekonomiko kaltetuko balu (adibidez, jarduera ekonomiko bat legez kanpo utziz), aipatu multinazionalak, nahi izanez gero, herrialde horretako justizia administrazio guztiaren gainetik nazioarteko arbitrajera jo dezake erabaki baten zain. Bertan, enpresa eta estatuaren arteko maila berdindu egiten da eta esan bezala berdin dio zein legitimitate politikoa eta demokratikoarekin hartu dituen estatuak aipatu erabakiak, soilik eragin omen dituen ondorioak kontutan har daitezkeelarik.



Hau da, estaturen botere subiranoa desagertzen da eta hartutako erabakiarengatik eragindako ustezko kostuak eta hauengatik ordaindu beharreko isuna edo konpentsazioa nazioarteko hiru epaileren esku uzten da.

Esan beharrik ez dago, estaturen burujabetza hala gelditzen delarik, nola gelditzen den burujabetza ekonomiko eta politikoa osoa ez dugun herrien egoera halako multinazional eta korporazioen aurrean.



4 Ondorio orokorrak

Hitzarmenaren sustatzaileek, eta bere defendatzaileek, bi helburu positibo iragarri dituzte. Batetik, halako akordio batek ekonomiaren garapenerako bultzada garrantzitsua litzatekeela. Bestea, garapen horrek enplegua sortuko lukeela. Edonola ere, aipatu behar da ondorio hauek jada kalkulatu eta publiko egin dituztela eta oro har ekonomia osoaren garapenean izango lukeen eragina txikia dela ondorioztatu dutela adituek. Enpleguaren alorrean, eta Europako Batzordea berak onartu duenez, hitzarmenaren ondorioz lana galdu dezaketen langileek zailtasunak izango dituzte lana bilatzeko kasu askotan lantegia ez ezik jarduera bera izango delako desagertuko dena. Mexiko eta AEBen arteko hitzarmena sustatzeko argudio berdinak erabili ziren eta ondorioak oso nabarmenak izan dira: ekonomiak oro har ez du horren ondorioz gora egiten eta ez dira lanpostu gehiago sortzen; alta, ondasunaren kontzentrazioa, aberastasun handien ugalketa eta multinazionalen botere oligarkikoaren areagotzea besterik ez da eman.

Ondorioz, bere sustapenerako iragartzen ziren ondorio positiboak nekez ikus daitezke eta alderantziz, botere ekonomikoaren kontzentrazioa burutzeaz gain, elikaduran, osasunean, ingurumenean, lan-harremanetan edota zuzenbidearen aplikazioan desarautze prozesu erraldoi baten aurrean aurki gaitzke.

Prozesu hau gainera era ilun, ezkutu eta antidemokratiko batean ematen ari da. Negoziaketak ezkutukoak dira eta parte hartzen ari diren ordezkariak bi kontinenteetako multinazionalen aholkuak eta eskariak jaso dituzte. Inork ez ditu aukeratu baina gure etorkizuneko bizitzan eragin ikaragarria izan ditzaketen gauzak negoziatzen ari dira, nola ez, gutxi batzuen mesederako. Eta nola ez, agintariak jada iragarri digute ez daudela prest herriari hitzarmen honi buruz galdetzeko, Maastrichtekin edota Europako Konstituzioarekin sortu ziren kontrako jarrerak sortu ez daitezen, isilean egiten ari dena herritarron belarrietara iritsi ez dadin.

Neoliberalismoaren urrats berri eta oso garrantzitsu baten aurrean gaude. Urteetan, herritarron eta langileen borrokari esker lortutako eskubide eta arautze ugariarekin amaitu eta ingurumena, osasuna edo langileen eskubideen gaintik, mozkina soilik helburu duen dinamika kapitalista eta neoliberala jaun eta jabe egitea da jokoan dagoena.

Hori guztia gutxi balitz, estatu baten tresnak ez ditugun herrirentzat eta bertan bizi garen langile eta oro har herritarrontzat ondorioak are larriagoak izan daitezke.

▶ 5 Zer egin dezakegu?

Lehenik eta behin, TTIPari ezetz esan behar diogu, argumentuz eta arrazoiz jositako ezetz irmoa. Horretarako EHBilduk ildo iraunkor bat martxan jarriko du beronen salaketarako eta halako hitzarmen batek izan ditzakeen ondorio larriak jakin arazteko eta euskal jendartea sentsibilizatu eta aktibatzeke.

Bigarrenik, indarrak bildu eta langile klasearen eta herri sektoreen arteko aliantza bilatu behar dugu, gure aldarrikapenek, guztiok batera eginez, oihartzun gehiago izan dezaten.

Salaketa ildoaz gain, poliki poliki, **ildo mobilizatzailea** ere aktibatu beharko dugu.

Euskal Herriak **ezetz esan behar dio TTIPari**, Euskal Herria esparru guztietan, baita ekonomikoan ere, bere buruaren jabe izango den estatuaren bidean urratsak ematen ari baita. Ez dugu Euskal Herri askerik izango, herri gisa zapalkuntza neoliberalari aurre egin eta sistema kapitalista gaindituko duen gure bideari ekiteko borrokatzen ez badugu.

▶ Eh

▶ eRABAKI hEMEN

ehbildu